

1. Euskera dantzara: iberiera euskeraren arabera

Josu Naberan Naberan



Josu Naberan apaiza, euskara irakaslea, itzultzailea (batez ere Hobbes, Hume, Herodoto eta Tuzidides bezalako lan klasikoetakoak) eta euskeraren jatorriari buruzko ikertzailea izan da, baita orain iberiar hizkuntzari buruzkoa ere. Euskeraren jatorriari buruz *Hitzen koba* lana argitaratu zuen.

Etnografiari buruz ere bai: *La vuelta de Sugaar* eta *Antzinako euskaldunen ilargi-egutegia* - El antiguo calendario lunar vasco eta iberierari buruzko bere lehen lana argitaratu berri du: *Euskera dantzara-El iberico según el euskera*.

Patxi Alaña Arrinda,
kultur talde anitzen bultzagileari

a) Sarrera

Ez nuen ulertzen zehazki zergatik izan duen hainbeste erreparatu iberierak.

Ez noa hemen “vascoiberismoa” deritzoten (euskal-iberiera) ikuskeraren historia azaltzera. Aski duzue INTERNETen sartzea izen horrekin.

Wilhelm von Humbolt (+1835) alemaniarrek zera esan zuen: antzinako iberioak euskaldunak zirela Espainia osoan. Pablo Astarloa izan zen alemaniar hori, Sabino Arana eta Caro Baroja konbentzitu zituen.

Baita esan zuen “euskerarik gabe ezinezko izango zela ezein etimologia ikerketak arrakasta izatea. Emil Hüber izan zen iberieraren epigrafia-ikerketan lehen saio garrantzitsua egin zuena XIX. mende hondarrean; eta Hugo Schuchard-en garaia, berriz, “vascoiberismoaren” gailurra, XX. mendearen atarian.

Edward Harris, “arkeologia modernoaren aitak” zera dio: “euskerak asko partekatzen du bereber, guantxe, egiptoar eta dogon/rdquo hizkuntzekin, adibidez.

Zergatik orduan iberiera baztertzea?

Batetik arrazoi ideologikoak. Espainiarrek ez zuten maite iberikoa, Afrikako jatorria esleitzen baitzieten. Nahiago zuten garai hartan (nazismoaren garaian) zeltak izatea, ario arrazakoak.

Beste alde batetik, arrazoi linguistikoak izan dira: Antonio Tovar eta Koldo Mitxelena “vascoiberistak” ziren hasiera batean, baina Tovarrek desengainu itzela izan zuen, euskaldunek iberieraz tutik ere ez genuela ulertzen ikustean. Orduan latinismora jo zuen, eta Mitxelenak ere bai, haren itzalpean beti. Beraz, euskera eta iberieraren antzekotasunak azalekoak baino ez zirela esan zuten.

Mitxelenak gehitu zuen oraingo euskera zeharo aldatua zela aitzin euskararekiko.

Juan Luis del Cerro jaunak iberierazko inskripzio batzuk dezifratu zituen euskeraren bidez, baina Larry Trask eta honen jarraitzaileek gogor kritikatu dute hura eta vascoiberismoa oro har. Uste dute (eta hauxe da gaur egungo ildo ofiziala) **euskera hizkuntza isolatua dela**. Adibidez,

munduko hizkuntzalari ospetsuenek onartu duten na-dene-kaukasiko familiaren ikuspuntuari ere muzin egin diote gurean. “Na de ná” komentatu du graziozki Joseba Lakarrak.

Joaquin Gorrochateguik bai onartzen duela halako senidetasun aire bat dutela euskerak eta iberierak, hizkuntza-eremu zabaleko kide izateagatik nonbait (*sprachbund* deritzotena).

Gaur egun vascoiberismoa sasoi onean dago..., Euskal Herrian izan ezik.

Hemen Larry Trasken “hizkuntza isolatuaren” teoria da jaun eta jabe, ikuspegi horri eustea gero eta zailagoa izango dela uste dudan arren. Isolamenduaren teoria hemen nagusi izateak badu bere arrazoi ideologikoa: nazionalista mordoxka batek uste du hobe dela gurea hizkuntza isolatua izatea, iberierarekin nahastua baino. Uste horixe daazpi-azpian dagoena 1940az geroztik. Horretan ez diote jarraitzen Sabino Aranari.

Nire ustez, euskera eta iberiera hizkuntza bera izan dira, azken hau sortu zenetik: *erlazio filogenetikoa* delakoa izan dute, harik eta neolitoan, (bakoitza bere lurraldean egonkortu zenean nekazaritzaren sorrerarekin), bereizten hasi ziren arte. Orain, iberiera desagertzean latinaren oldarrez duela 2000 urte inguru, inskripzioetan geratu zaigu, eta batik bat, Hispania osoko toponimia ia-ia osoan. Ez da gutxi.

Beraz, iberiera euskeraren ahizpa izan zen, eta hispaniera gure lehengusina da. Egitate horrek, egoera normal batean, ez luke jarrera berezirik eragin behar (jarrera zientifikoa eta kitto). Baina gurea ez da batere “egoera normala”.

Bihoa, beraz, nire jarrera politikoa: diskurtsoa luzatuko lidatekeen ebidentzia askoren artean, euskal kultura eta hizkuntza suntsitzera zuzendutako sistema kolonizatzaile jasanezina bizi dugulako, burujabetza da gure aterabide bakarra, nire ustez.

Ahaztu gabe Frantziak ere antzeko jarrera duela euskerarekiko, “Espainiako Erreinuak”, arestiko amets inperialen itzala besterik ez den Estatu-mamu honek Hispaniaren izena bera ere zikindu egin du..

Beraz, independentista naiz, nire herriko jende talde handi bat bezala. Argi daukat: errazago deritzot handiki bakar baten (*bakir*) aurrean jardutea, handiki bikoitzaren (*bikir*) kontra baino. Eta orain goazen *bakir* eta *bikir* esaten zutenen hizkuntza aztertzerari kariñoz, iberiera ez baitzen alferrik izan euskeraren ahizpa bikia.

Esan bezala, euskera/iberieraren ikerketa aurrera doa, eta horretan beste ekarpen bat deritzot nireari.

Hona hemen iberierazko testu garrantzitsu batzuk

b) Lliariako (Valentzia) “zaldunaren” hileta-ontzi inguruko testua

BASARTE:BONANDITE:NMABARTE:BORDEBARA:GARESIRTEGIAR/

*EDURTEEGIAR/DERDETIS/KARBA/BEGOR/BANIR/BANKUTURIRADIAR/BELAR/BANB
ERBO*

Berreraiketa: basoarte boro-andi-ate, nau arte, boro-en behe-ara, gar-en ziri-uko egitean, edurte egitean, derderetiz karba begor banir, bai kutur iradi-ara belar, bai ibarboro.

??

Kosmogoniari dagokionez, sineste ezaguna dugu dagoeneko: behorriari dagokio bere gainean daraman defuntua beste mundura eroatea. Eta paradisura doaz, zinez, zeren irrikatzen baitaude *kaballoa* nahiz behorra hango paraje goikoen nahiz behekoetako belarra, dela irati ezkutukoa nahiz ibarburukoa.

Literaturari dagokionez, poema ederra bezain hunkigarria deritzot: **defuntu-eramaleak irrikatzen daude “Paraisora” (Josepateko Zelaira) iristeko.**

Testuari berari dagokionean, bada azalpen laburra behar duen zenbait berba.

BORO badakigu BURUren aldaera dela, baita sarri askotan mendiburua izendatzeko erabiltzen zutela gure arbasoek.

NAU (*nb´/nau*) lautada dela; GAR *kanikula* dela eta horren ondoriozko (-EN)eurari uko gertatzeak, ZI(RI)-UKO, sikate larria, GAR dakarrela, elurteak ere antzeko larritasuna dakarrenez.

KARBA *kara-be-ai-or “buru (kara) luzanga (behe-ai) duen animalia (or) esan nahi du. Eta beste horrenbeste BEHOR hitzak: iparraldean BOHOR (jatorrizko hitza) eta *boro-or “buru-animalia” esan nahi du, espezie horren **buru luzangak** eman baitzien arreta gure arbasoei.



c) Andelos (Andion) (Mendigorria-Nafarroa)

LIKINE ABOLORAUNE EKIEK BILBILIARS

(LIKINE BILBILIARS EKIEK ABULORAUNE) latin-dieresia kenduta.

Likine bilbilistarrak ekien abuloraune

Jardín de mosaico hecho por Likine

Likine hitzak ofizioaren izena ematen du, besterik gabe, hargine eta beste zenbait ofizio izendatzeko **-NE** atzizki horrekin. **LIKA**, izatez, materia itsasgarri bat da, Bilbotarrek Txorierriko kardantxiloak harrapatzeke erabiltzen dutena oraindik; eta **LIKIN** badakigu gai likitsa dela. Azkenez, **ABOLORAUNE**, hitzez hitz, mortairuzko (ABU) loraune bat da. Hots, mosaikoa. Testua bera, sinadura da besterik gabe. Bilbilisko (Calatayud hiriaren antzinako izena) *likine* baten sinadura.

Iberiera baino, letra iberikoz idatzitako euskera dirudi.

d) Beste testu bat

IUN *JUNE/JAONE/JAUNE : la DAMA

UNI-SAN *UNI IZAN, UNI DENA (*iun/uni* meton.); Jaq., divinidad femenina.

UR´KE/ URGE “LUGAR ALTO IMPORTANTE” (Antoni Jaquemont)

*URGOE→UR´KE/OR´KU *UR-GOE // URTZIA // ZEUS duela 7000 urteko lehortea garaiko “jainko/jaikosak” kultura ezberdinetan, esangura berarekin): **goiko urak** .

UR'KE (ur-goe); URTZI *uru- zi = goiko ura); ZEUS *ze-urus (ur goiena). Beraz, ez da jainko-jainkosarik, baizik **ur eskea** soilik. Materialistak?. Marx aurreko materialismoa

e) Duela 2.300 inguru iberieraz idatzitako osoko testuak berun-tauletetan

Orain, azkenean, hitz isolatu edo zerrenda zurrunak ez diren osoko testuei egingo diegu aurre.

Levante aldeko hiru aztarnategitan aurkituak dira oraintsu, berun gainean idatzita: Castellóko **Pujol de Gasset** delakoa; Castellóko **Punta d'Orleil**; eta Gironako **Ullastret** delakoa, azken hau Puig de Sant Andreu aztarnategian.

PUJOL DE GASSET ("tumulo" batean aurkitu dute eta gaia heriotza eta berpizkundeari buruzkoa da.

1. **Multzoa:** *m'bar'tiaikiz :abar'ieikite :zinebetin :ur'eker'er'e : aurunibeikeai :*

Bereizketa: M'bar-ti-ai-kiz: abar'-ieiki-te-zine-betin-ur'e'-ker'e: aur-uni-beike-ai:


Berreraiketa: Umartiai-ki-z: abar-ieikite-zine-betin: ur-en-ker'e: aur-uni-bei-ke-ai:

Irakurketa: **ETSE GURENEKO BOKALEA:** HIRE HONDAKINAK BIR-JEIKI BITEZ BEHINGOZ, DEFUNTU HORI, UR EMANKORREN UNI-ANDERE BIKAINAREN HAUR HORI:

2. **Multzoa:** *Baitezki: ekuzu: sosinbiur'ru: aztebeikeaie: ekar'iu: atuniu: botuei: baitezki: ber'igarzenze: ultiteger'aigaze: arkitiger: aigaz: balkebiur'aiez: baitez banikekarze: borberoniu: kosoju: baitezki: ber'igarzenze: ultiteger'aigaze.*

Bereizketa eta berreraiketa: Baitez-ki: ekuzu: sosin- biurr: une: az-te-bei-ke-aie: ekar'iu: ate-un-ju: boro-tui-ei: baitezki: ber'-i-gara-zenze: uli-te-ger-aigaze: boro-ber-on-ju: koso-ju: baitezki: ber'-i-gar: zenze: uli-teger: aigaze.

Irakurketa: ENTZUN, BAITA, *URBI* DELAKOAN, IBAIGUNeko UR-JAUZI HARRIGARRIAK; EKAR EZAZU GOGORA , BAITA, IBERBURUKO GUNE BIKAINA; ETA ADI EZAZU IBER GOIENA



3. **multzoa:** Arkitiger: aigaz: balkebiur'aiez: baitezbanikekarze.

Bereizketa eta berreraiketa: Arki-tiger: aigaz: balke-biur-aiez: baitez-ban-ike-kara-ze

Irakurketa: ETA HALAXE AGERRE ARGI ETA GARBIA, BAITA URBIKO ARRO HAIEK, ETA UR-EKARRI HURA, ZU DEFUNTU !

Ekarpenak KULTURA: Zenduari agur egiteko **poema** ederra da, sentimenduz eta irudimenez bikaina. Horrelakoren bat nahi nuke.

IUN/UNI Damarenganako jarrera errespetuz betea dager. Badirudi gure zenduak, berba eta ikusi ezin duen arren, entzun, gogoratu eta aditu bai egin dezakeela.

ORLLEL V. (hau ere osoko testua). Oraingoan IUN DAMA bera zuzentzen zaigu irakurleoi. Irudika "Eltzeko Dama" izan daitekeela, bere Tenplua garbi nahi duela esaten, Korgo zizelaria bakean huts dezatela, eta harritu nauten beste kontu interesgarri batzuk.

1. **Multzoa:** *Ir´e : pototaz: bitebakirsbane:bar´enyliki: antinyliturane: ar´ikar: zeken:*

Bereizketa: ir´e: poto-taz: bi-te-bakirs-ban-e: bar-en-yliki: an-tin-ili-tur-ane: ar-ikar-ze-ken

Berreraiketa: ira-en: boroto-taz: bite-bakirs-ebane: abar´en-yliki: an-tin-ilitu-tur-ara-une: tui-ara-ikear: zeken:


Irakurketa: HORREGATIK, OPILTXO ZATIAK BITEZ BANAN-BANAN HAINBANATUAK, HIRI BARNEA, HIRIKO ALDARE-GUNEA ETA TENPLU SAKRATUA DUINAK DAITEZEN:

2. **Multzoa:** *luzu: atilepeiu: latur´izker´kate: banylir: baituturane: kaizanylir´baitura: nei:*

Bereizketa: luzu-atile-pe-iu: la-tur´iz-ker´ka-te: ban-yilir´-baitu-tur-ane: ka-izan-yilir´-baitur-a: nei:

Berreraiketa: luzu-atilepe-iu: lea-tur-izker-karate: ban, yilrbaitu-tur-ara-une: keai izan yilir´baituara nei:

Irakurketa: EGON ZAITEZTE ELEIZPEAN, TENPLUA ERABAT SAKRATUA IZAN DADIN, BAITA HIRIA ETA NIRE ALDARE-BARRUTIA ERE:



3. **Multzoa:** *Itailinir: kutur: bite´oketetineeratiarre: kogor: tauebartiate: ar´ikarbinylikize:*

Bereizketa: Itail-in-ir: ku-tur: bite´-okete-tine-eratiarre: kogor: taue-barti-ate-ar´-ik-ar-bin-yliki-ze

Berreraiketa: Itailinir: kutur: bite´-okete-tine-eratiarre: kogor: taue-barti-ate-ara-ike-ara-bin-ilyki-ze:

Irakurketa: BERAZ, KOGOR TAILARI KUTUNA LASAI ARI DADILA HEURE HILOBIA ERATZEN DUEN BITARTEAN, HIRE ATE BERRIA OBRA BIKAINA ETA HIRIARI DAGOKIONA IZAN DADIN:

4-5-6. Multzoak:

lunztirlaku: pototazeai: zelkeai: bartuneai: unipeikeai: aner´ai: kanipeikeai:

iunztirlaku: uzkeike: pototiki: keietiziatenze: ustalarigaune: banyr´esu.-

Gau: bitir´okepetenze: uskean erlati.

Bereizketa

lunztir-laku: poto-taz-e-ai: zelke-ai: bar-tu-ne-ai: uni-pe-ke-ai: aner´ai: kani-pe-ke-ai:

lunztir-laku: uz-kei-ke: poto-tiki: ke-ie-tizi-aten-ze: us-talari-gaune: banir´esu.-

Gau: bi-tir´-okepe-tenze: us-ke-an: erlati.

Berreraiketa

Iunztirlaku: uzkeike: pototaz-se-ai: zelkeai: abartune-ai: unipekeai: aner'ai: kara-uni-pekeai: iunztirlaku: uzkeike: pototiki: ke-ietizi-ate-en-ze: ustalari-gaune: banir'esu.-

Gau: bitir'okepe-tenze: us-ke-an: erlati.-

Irakurketa

JUN DAMAREN TENPLU-INGURUA GARBI ETA DUIN BEDI: OPIL-ZATIAK, SELAURUA, ZABORTEGIA, **UNIREN** SOTOA, JAKITEGIA, GANBARA... GARBI-GARBI. HALA BITEZ ZUEN OPIL- ETA ATE-HONDARKIAK, NOLA ZIZELKARIAREN GURE NAHIZ ZENDUON HONDARKIAK: BEHINGOZ GARBIAK BITEZ.

GURE (IUN) BIKAIN-BIKAINAGATIK: ZENDUEN HILOBIAK GARBI ETA ERLATZU DAITEZELA !!

Ekarpenak kultur arloan: Hona hemen arreta berezia eman didan lehenbiziko kontua: testu honen hasieran esaten denez, Kristo aurretiko hirugarren mendean **eukaristia ospatzen zen IUN Damaren tenpluan.**

Opiltxoak zatikatu eta hostiak banatzen ziren, hitzez hitz. Beraz, Jesukristo, azken afarian, aurreko tradizio batean oinarrituko zen.

Bestalde, Dama beneratzen badute ere, nabari da Castellóko hiri iberiar horretan sistema "teokratikoa" bizi dutela: den-dena dago antolatuta Tenpluan edo tenpluaren inguruan. Duela 5.500 urte Mesopotamian izan zen **tenplu-hiria** dugu hemen ere.

Iberierak genero-markarik ez duenez, ezin jakin **genero**-oreka zegoen ala ez tenpluko funtzionarioen artean eta hiriko jendartean.

Funtzionario haiek IUN Damaren ahotik ematen dituzte aholkuak eta aginduak. Badirudi jendeak ez dituela lehengo ohitura onak errespetatzen. Erljio-**dekadentziaren** zantzua ote da iberiarren artean?

Hurrengo honek ere eman dit arreta: **ustalari**. Izan ere, zizelkaria izendatzeko USTALARI hitza darabilte. Hau da huts-tailari, huts-guneen *tailaria*. Pozgarria zatekeen Jurgi Oteizarentzat. Gainera, euskerazko erro arkaiko bat azaleratzen zaigu: **TAI**.

Ekarpenak hizkuntza arloan: **Aditza**. IUN Damaren aginduak direnez, **agintera** da nagusi, bai testu osoan zehar, baita aditz-jokoan. Lehenengo eta behin **-AN** erro garrantzitsua daukagu (**uzkean**), euskerazko BEDI/BITEZ adierazteko. Esaldi hasierako **AN-** aditzia, berriz, beste kontu bat litzateke; hori, nire ustez, euskerazko AN aditza dateke, *abia, jarduna, mugimendua eta etorkizuna* adierazteko. "ABIAN" diogu guk ere, **-AN** hori eta iberierazkoa gauza bera izan daitezkeelarik. Bistan dago **-AN** polisemikoa dela.

Hispanieraz, SEA/SEAN daukagu; latinak, berriz, gure **-AN** hori *AD* ahoskatu zuen.

Iberierazko AN- aurrizkia ere sarritan ageri da Luis Silgoren zerrenda-liburuan: *aner'iu, anuer'iu...*

Silgok berak uste du *jatorria* edo halako zerbait adierazten duela (hispanieraz, akaso, *aborígen* hitzak bezala, diot nik). Latinak *AB* jaso zuen antzinateko ABU errotik (aho/ago); hispanieraz BOCA.

f) Esamolde xeble bat

Oraintsu arte, BEINKE/BINKE edo BINKE BEHIN entzutean, erdarakadatzat jotzen nuen. Baina ez: iberierazko *binike* eta *binike betin* ditugu hurrenez hurren.

Beste gauza bat: *Biurrun* toponimo eta abizena ez nuen jakingo zer den, iberieratik izan ez balitz: ***biur'une**: "bi ibai elkartzen diren gune".

g) ULLASTRET (zati bitan bereizita dagoen testu bat, Gironan aurkitua)

Lehenengo zatia patin berri baten salmenta-eskaintzari buruzkoa da; bigarrenean, lursail batzuen salmenta-agiri bat da nonbait; tratu garrantzitsua, itxuraz, berun-tauleta batean idatzita uztea merezi izan zuena).

- 0) Lehen hitza lerro bakarrean: *ar' basiar' ebe:*
- BAILARAKO PRODUKTUEN AUKERA
 - OCASIÓN (epe) DE PRODUCTOS (ara) DEL VALLE (basiar')

1-2. multzoak:

Ebar'ikame: tuikezir'a: borste: abar'keborste: ter:


Tir'z: baitesbi: leiteker'u: tar'beli: or'ku: timor #

Bereizketa: Ebar'i- kame: tui-ke-zir'a: borzte: abar'-ke-borzte: ter:

Tirz: baitez-bi: leite-ker'u: tar'beli-or'ku: ti-mor #

Berreraiketa: Ebarri-kame-tui-ike-zari: borste: abar'ke-borste: tertir's: baitesbi: leite-ke-urre: tar'beli-koro: timor #

Irakurketa: BAILARAKO PRODUKTUEN AUKERA: PATIN BARRIA PREZIO EGOKI-EGOKIAN: 5'15 TER INGURUKO LURSAILA: ORDAINSARIA, LEGEZKO URRE BOROBILETIK ERDIA GUTXI GORABEHERA



4. multzoa

*Ki'r: Bartasko: anbeiku: *baitesir: salduko: kuletaber'ke:*

Lor'zapatabi: biur'tanes: saldukiler'ku: bikiltir'ste: er'ezu: kotibanen: eberka: tazkalir's: lor'sa: batibi: biur'tanes: saldukiler'ku.-

5. Multzoa: Badar'un: abazager: tasber'iun: erna: borakau #

Bereizketa: Ki'r: -Bartas-ko-an-bei-ku: baite-sir': sal-du-ko: ku-le-ta-ber'ke: lor'-sa-batibi: biur'-tanes: saldu-ki-le-er'ku.-

Badar-un: abazager:tasber'iun: erna: bora-kau #

Irakurketa: ... SAILA:: BARTASKO SENIDE ZARENEZ, SARI BAITAN ZELAITXU BURUKO ARROAN IBERBURUKO BI ALOR-TXAPLATA, URBIKO SARRERA GUNEAN: ETA ARRAZOI BERAGATIK, AGERRE BARRENEKO ZELAIGUNEA ERE ARRO GOIENEAN: GURETZAT HEREN BAT.

6. Multzoa: *Bikir'tirs'te: er'ezu: kotibanen: eberka: tazkalir's.-*

Berreraiketa: *Bikir-tir's-te: er'ezu: kotibanen: epeka: tazkalir's.*

Badar'un atabager abazager tasberiuun erna borakau.-

Irakurketa: LURSAIL BIKAINAK DITUZU, ZURETZAT ERRAZ KOTIZATZEKOAK: KALIR-ERDIA, EPEKA.

Inskripzioetatik jasotako letrez gain, iberiera erruz aurki daiteke (euskararen baitan ez eze) hispanieran eta toponimian. Azken honekin egin dezakegu aproba txiki bat.

h) Iberieraren egitura

Azaltzea, sarrera gisa, iberierak ez duela genero markarik, euskarak ere ez duenez. –NE gutxi batzuk ageri dira, baina ofizioa (*likine*) adierazten dute edo jabegoa (*enne*)

Bada, izan, –NE bat femeninoa dirudiena, JUN “jainkosa” edo DAMArena: JUNE. Baina uste dut hori ere *Jun-ene dela, “DAMA Nirea”(DAMA mía) adierazteko. *Bokatiboa*, beraz.

Iberiera alfabetoa 28 zeinu erdi-silabikoz osatuta dago, ezkerretik eskuinera. Gabriel Gómez Moreno izan zen zeinu horiek dezifratu eta gure alfabetora itzuli zituena. Hil-esteletan, mosaikoetan eta zeramika gainean idatzita aurkitu dira, hala nola baten batzuk berun edo brontzezko taulatxoan gainean. Iberierazko idazkera klasikoaren gailurra duela -2300 urtetik honantz gertatu zen, Levante aldean batik bat.

“**Ascoli Brontzea**” Iberiera zerrendan letra etzanez ageri diren hitzak brontzezko taulatxo horren gainean idatzita aurkitu zituzten Erroman, 1908an.

Erromako inperioan, nortzuk eta Zeltak matxinatu ziren inperioaren aurka, eta ondorioz, “Aliatuen Gerra” deritzana hasi zen (-2091-2028). Zelten aurka borrokatzeko, Ebro ibarreko Errioxa eta Salduie bitarteko iberoak erreklutatu zituzten. Gerra hura amaitzean, Pompeyo Estrabón kontsulak “cives romanus” titulua eman zien iberiar haiei gerra-merituengatik, eta horrez gain beste sari batzuk. Erromatarrek bazekiten euren aliatuak saritzen.

Harridura osoz, “Ascoli Brontze” gainean idatzitakoa dezifratzean, gehienak **ez direla antroponimoak** hauteman dut, nahiz eta “los antropónimos del Bronce de Ascoli” deritzen. Zerrenda horretan, iberiarrei emandako sariak ageri dira, zehazki LURSAILAK, ETXEAK, SOROAK eta ZUBIAK. Nik ez dakit brontze horretan idatzitako aginduak benetan gauzatu ziren ala ez, Errioxa urrutixe baitago Erromatik, baina lursailak eta abarrak ez dira makalak: horien **132 modalitate** dago: non kokatuta dauden: landaburuetan edo beheko lautadetan, hiri ondoan, IUNen Tenpluaren *arroan* (lunztir*laku*), edota aldirietan; haranean, ibarrean, ibai-buruan, mendilepoan, mesetan... eta hori dena mila ñabarduraz adierazita. Eta gero, zer nolako kalitatezkoak diren... LEKU-IZEN, HIZKI eta IZENLAGUN ugari dago hor.

Beraz, Concilium erromatarra osatzen duten partaideen izenak izan ezik, toponimo arruntak dira, iritzi orokorrak bestelakoa uste duen arren oraindik.

i) Fonetika: euskeraren eta iberieraren ahoskera ezberdintsua.

Iberierak ezpainkari (labial) eta eztarriko (gutural) mordoxka dauka. Euskeraren ahoskera, aldiz, **ahosabaikoa** da funtsean (*sabaikaria* deitzen zaio). Adib.: IN, -AN, -UN, -ON, -EN

Orduan, guturalekin edo ezpainkariekin (*labialekin*) topo egiten duenean, ahalegin guztiak eta bi egingo du haiek ahosabairantz eramaten.

Adibidez, LAKUN eztarriko hotsa, ahosabai-atzera (*belar* deritzonera) igortzen ahaleginduko da, LAGUN esanez. Gauza bera UGAR→UHAR, etabar.

Ezpainkariekin topo egitean, ahosabairantz igortzeari ekingo dio, ahal duen neurrian. Adibidez, ABAR (iberikoa) HAMAR ahoskatu dugu; eta ABA→AMA; ABO→AHO; TEI→HI

Azkenez, iberierak **H** hasperendua galdu zuen. Baita **Z** horzkaria ere.

Gaur egungo euskerak ere bide bera darama; izatez, Krutwig izan zen euskera hasperendun jatorrena egiten zuena, baita beharbada azken neandertal euskalduna.

Iberieraren apalaldian latinaren eragina sumatzen da argiro:

Lehenik, **I** bokala **U** bihurtzen da, indoeuroparren lasaitasunerako; baita horzkariak eta eztarrikoak biguntzera jotzen dute:

KALTUR→**GALDUR** eta **ATINKIBAS**→**ADINGIBAS**; eta jatorrizko ezpainkariak erlaxatu egiten dira: **M´BAR**→**UMAR**

j) Metodologia

Metodologiari buruz ezer gutxi dut esateko.

Aurreiritziak uxatzea izan da lehenengo lana, eta ez makala. Eskerrak ene aurreiritzia toponimiarako jitea zela eta *Ascoli Brontzea* toponimia izatea suertatu dela. Hori bai zorte-kolpea!

Ez naiz oinarritu hiztegietan, horiek lagundu bai, baina ezin baitute erro primitiborik eman. Nire oinarria, berriz, aurretiaz hauteman eta sailkatutako erroak izan dira. “Gure kultur nortasuna eta iraultza” liburuan azaltzen dudana (aurten argitaratua beharko lukeena. Testuingurua ezagutzeak asko lagundu dit, baita sarritan errepikatzen diren iberierazko hitz-gakoei erreparatzeak; horixe gertatzen da “Ascoli Brontzean”, oso aproposa iberieraren “lehen mailarako”

Lehenengo kolpean hitzen antzekotasuna sumatzeak ez dit batere lagundu: *tiker, sikor, cior, biskar, bilos, isker, san, cenn* etab., hitz **guzti** horiek aldatu egin behar izan ditut gerora, eta hasieran uste nuen esangurarekiko zeharo bestelakoak eman dituzte.

Las bases de mi investigación han sido las listas de términos formantes (matrices) del euskera, previamente elaboradas.

- *Primera serie (que llamo “euskera arcaico”): las onomatopeyas o monosílabos indivisibles, que pertenecen a los inicios del lenguaje humano; son unos 35 o 40 formantes, de los que han derivado la gran mayoría de palabras antiguas.*
- *Segunda serie (que denomino “euskera akitano o De Las Cuevas”. Son términos bisílabos que surgieron hace unos 18 mil años en el hábitat paleolítico que abarca el territorio que comprende este nicho occidental del lenguaje, desde Dordoña hasta Asturias, ambos incluidos.*
- *Hacia los años 5 o 6 mil, surge el euskera flexible, un idioma completo ya, con sufijos, verbos y todo lo demás, como exigía la revolución material neolítica. Ese euskera, con el antiguo aquitano más raíces importantes del amazigh bereber y del lenguaje circum-mediterráneo de origen sahariano es un idioma completo, unos 4 mil años de que nacieran el grigo y el latín. La gran mayoría de dichos formantes son compartidos por el ibérico, lo cual me ha permitido la interpretación de éste último.*

